

Ezpalak

JON TORNER

Zubeldia, Aristi eta Jauregizar saritu ditu Euskaltzaindiak



EUSKALTZAINDIK eta BBK Fundazioak lau Literatur Sari eman ohi dituzte, baina aurtengo edizioan Mikel Zarate saiakera saria hutsik geratu da. Beste hiru ataletako irabazleak

hauek izan dira: Mikel Zubeldiaren *Ekilibristaren polka* lanak eleberririk alorreko Txomin Agirre saria jaso du, Pako Aristiren *Josu Dukatiren proposamena* obrak antzerki alorreko Toribio Altzaga saria, eta Amaia Jauregizarren *Azazkalak jaten* lanak olerki alorreko Arrese Beitia saria.

Bestalde, Antton Luku idazle eta antzerkigileak irabazi du Juan Zelaia Saiakera Saria, Ipar Euskal Herriko kultura hizpide duen *Euskal kultura?* lanari esker. Azterketa “ausart eta eraginkorra” egiteagatik eta “saiakera akademikoa baino, eztabaida eragile” izateagatik saritu dute Luku.

Artxibo historikoaren proiektua finkatuta

EUSKAL HERRIKO ARTXIBO HISTORIKO NAZIONALAREN EGOITZA Bilboko Berga eraikina izango zela aurreikusi zuten hasiera batean, baina Miren Azkaratek jakinarazi duenez, 1930an egindako eraikinaren zimenduek ez dute indar nahikorik artxibo historikoa eusteko. Horregatik, hura eraitsi eta leku berean eraikin berria egingo dute. ACXT arkitekto taldeak diseinatu du proiektua. Sinbolismo handiko eraikina izango da eta, adibidez, eraikinaren fatxadak paper tolestua irudikatuko du beiraz. Hamaika solairu izango ditu etxeak, lau lurpean eta zazpi lur mailatik gora. Obrei datorren urteko hasieran ekingo diete eta 2011 hasierarako amaitu nahi dituzte.

Mikel Hernandez Abaituak *Ramon Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza* (EHU) izeneko doktore tesia argitaratu du. Idazle donostiarraren *Egunero hasten delako* (1969), *100 metro* (1976) eta *Ene Jesus!* (1982) liburuak aztertu ditu Abaituak.

Bide Ertzean taldeak zuzeneko CD-DVDa grabatu du urtarrilaren 16an Tolosako Leidor aretoan. Kontzertu “berezi” horretarako sarrerak salgai daude 10 eurotan. Informazio gehiago www.bider-tzean.com webgunean aurkituko duzue.



XABIER ESKISABEL

Amaia Graciak irabazi du 2008ko Artista Gazteen Iruñea Lehiaketa, egur eta beiraz egindako *Tótem en alza* lanagatik. Bigarren eta hirugarren sariak Irantzu Sanzo eta Javier Articarentzat izan dira, hurrenez hurren. Gasteizko Amara aretoan, bestalde, berrogeita hamar artista gazteren lanak bildu dituzte, *Murgiltzeak* proiektuaren bigarren urratsa den erakusketan.

Alberto Diaz 'Korda' argazkilarikubatarak



Ernesto Guevara *Che* gerrillariari ateratako argazki ezaguna ikus daiteke, besteak beste, Zarauzko Photomuseumeko *Latinoamerikar argazkigintza* erakusketan. Angel Alonso argazkilarikubatararen bildumakoak dira irudi guztiak. *Che*-ren argazkian, Kordak Alonsorentzat idaztitako eskaintza ikus daiteke. Erakusketa urtarrilaren 25era arte izango da zabalik.

Erakusketa urtarrilaren 25era arte izango da zabalik.

● **Andoni Tolosa Info7 irrati esatariak Berrian:** «Inoiz baino irratik gehiago entzun daiteke teoriarik, eta inoiz baino musika ezberdin gutxiago entzun daiteke. Irratiko genero bat galtzen ari da poliki-poliki: kalitateko kolaboratzaileek egiten dituzten kalitateko musika duten saioak. Saio batekin konfiantza hartzen duzunean, bere jarraitzaile bilakatzen zara, eta hori bilakatzen da zure asteroko ordua. Hori galtzen ari da, irratik formula hutsa etsigarriaren mesedean. Komertzialtasuna da musikak aukeratzeko irizpide bakarra eta beste guztiak, kalitatea batez ere, bost axola. Irratia entzuten dugu leku guztietan eta gero eta pobregoa dela iruditzen zait. Utzikeria dago».

● **Fito Rodriguezek *Geu Gasteiz* aldizkarian,** erakunde kultur politikek Gasteizko panorama artistikoan izan duten eragina berrikustea helburu duen *Hari Gorriak* proiektuari buruz: «Instituzioek aurrera eramandako kulturaren arautzeak administrazio eredu zurrunik ekarri ditu. Intuzio bidezko prozesu berezkoak geldiarazteko joera hedatuz. Administrazioa eta sorkuntza oso bestelako munduak dira. Hala eta guztiz ere, elkarren beharra dute. Harreman berezi hori azaltzen saiatu gara (...) Bizi kalitateaz harro sentitzen da Gasteiz, baina harrotasun hori alor kulturalera islatu beharko litzateke».

Abarrak

Aitzakia ederraren arantzak

ESTITXU EIZAGIRRE

AURTENGOA Bizkaiko 50. Txapelketa izan da. BEC-eko prespektiba koloretsua, saio aurretik ikusi genituen txuribeltzeko argazki historikoen kontraste polita izan zen. Saio bikainak eta hasierako agurren aipamenek, urteurrena ondo ospatzeko modua eman ziguten. Xabi Payak finaleko bertsolari gazteenaren saria jaso zuenean, atzetik datorren belaunaldia tentatu zuen, hurrena beste norbait joan dadin sari hori jasotzera. Bizkaiko harrobia sendo ikusten da, eta bi urte barruko finalistetan aldaketak izateko aukerak badira.

Saioa gozamenaren izan zen, eta txapeldunaren agurrak jarri zien hitza entzuleok puntuak entzutean sentitutako nahasmenduari: “Txapel bat txapel bat baino ez da / baina atxaki ederra da / danok elkartzen bagara”.

Puntuak puntu, festa egun horrek merezi duela da etxerakoan ekartzen den sentsazioa. Eta inork ez ditugula joko arauak kontrolatzen. Bai, saioa lasai ederrean entzutetik bertsoak banaka puntuatzera alde handia dago. Noski ez naizela balorazioak egiteko epaileak baino trebeagoa. Baina inguruan eskarmentu handiko



Datuak: 4.500 lagun, 8 bertsolari, 6 epaile. **Puntuak:** Igor Elortza, 909. Unai Iturriaga, 891.5. Arkaitz Estiballes, 500. Iratxe Ibarra, 489.5. Onintza Enbeita, 489. Etxahun Lekue, 487.5. Xabi Paya, 486. Fredi Paya, 478.

bertsolariak nituen, eta bakoitzak bere epaia eman zuen, ez zetozen ezertan bat. Bertsoa artea den neurrian epai ezina dela inoiz baino argiago esaten da. Entzule gisa, niri bost axola zirku erromatar horretan nor botatzen den lehoietara eta nor bihurtzen dugun enperadore. Baina joko arauak ezagutzen ez ditugun jolas horri bi arantza zorrotz behintzat ikus dakizkioke: Nagusia, bertsolari batzuek

euren bizibidea noraino jartzen duten jokoan puntuaketa taula horretan. Xabi Paya izan zen iaz gehienetarikoa ibili zen bertsolaria. 2009an ikusiko da txapelketek edo beste faktore batzuek definitzen dituzten plazaz plazako kartelak. Eta bigarren arantzak nire imaginario inuzentea ziztatzen du. Egungo finalak ikusita, Txapeldun Handien Palkoa gainera eroriko zaidan dut amesgaizto... Irabazleen handitasuna dudak jarri ere egin gabe, arreta ertzera doakit: Txapeldun handi baten atzean beti dagoelako beste bertsolari handi (kuadrila) bat.

Palko handiagoa beharko dugu...

Nabarmendutako aleak

MIREN IBARLUZEA

DISKURISO erabat sinesgarriak eraiki zituzten bertsolariak, errealak zelanbait. Zortziko txikiko ariketek ederto dibertitu gintuzten. Payatarrek gizon-emazteen rola hartu behar izan zuten, ezin egokiago sartu zen aita tradizionalaren paperean Fredi. Iturriagak eta Estiballesek ere ale ederrak ekarri zituzten, Santiago Bidean astoa etzun eta altxatzen ez zelako.

Hamarreko txikian ere ale politak joan ziren. Ibarrek eta Xabi Payak gorputz baliabideak eta kanpoko erreferentziak ederto ekarri zituzten bertsoak.

Bakarka neurri librean kantatzekoak bi bertso baino ez ziren, eta labur egin zitzaizkigun zenbait bertsoaldi. Arkaitz Estiballesek ordura arte egindako saioan goia jo zuen, ikusi ere ikusi egiten genuen kantuan ari zela maitalearen logelako armairu barruan.

Buruz burukoan, Igor hazten ikusi genuen. Kartzelako gaia bide bertsutik jorratu zuten bi-biek. “Astelehen

goiza da, irribarretsu zagoz oraindino”, eman zien Bernar Mandalunizek. Iturriagak bere-berea duen estiloan bota zuen lehen bertsoa: “Gaur itzartu naz normala baino askoz be lehenago: / egia esan bart lotan ordu asko ez dot igaro, / gorputza nekatu arren burmuina joan da harago. / Zeozer pasau danaren seinalea dogu, klaro. / Pausuan be sentitzen naz zentrimetro bat gorago, / kalean danak begira ta begiradak arraro. / Hori amargau pilo! Mundu hontan asko dago! / Pentsau gura dozuena, enamoraduta nago!”. Elortzak teknika eta hitzen edertasuna menderatzen zuela erakutsi zigun beste behin Laboaren *Izarren Hautsa* doinuan hiru bertso eder josi zituzten. Hirurak ondo baino hobeto ekarriak.

www.argia.com/argia-astekaria

helbidean, Miren Ibarluzeak Bizkaiko Txapelketaren kanporaketei eginiko kritika artikulua.